

TREBAKUNTZA 2022-10: EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIAN EGUNERAKETAK

Urtean birritan berritu ohi dute Euskaltzaindiaren Hiztegia, eta uztailean jakinarazi zituzten azken hilabeteotan jasotako aldaketak. Denera, 431 forma berri gehitu dituzte, bai sarrera nagusietan, bai horien azpisarreretan.

Sarrera berriak egiteaz gain, zuzendu edo osatu ere egin dituzte beste asko. Forma berrien artean, hitz teknikoak dira asko; hitz berri arruntagoak ere sartu dituzte, definizioekin batera.

Hona sarrera berri batzuen definizioak:

Buruloka edo *buru-loka*: buruarina.

Oikonimo: etxe-izena.

Superni: Freuden psikoanalisian, psikearen zatia, egoaren kontzientzia kritiko bezala aritzen den, haurtzaroan gurasoekin eta hezitzaileekin izandako harremanetan garatzen dena.

Zurmailu: Zurezko mailu handia, edo maza.

Esapideak

Azpisarrerera berrietan badira esapide berezi batzuk ere. Badira *galtzak bete lan eduki* edo *batzorde iraunkor* bezalakoak, baina baita ezezagunagoak ere:

Ahuntzak adarrak dituen aldera joatea, alderantziz edo kontrako aldera dabilenari esateko.

Akuran eman: errentan eman.

Akuran hartu: errentan hartu.

Arima hortzetan edukitzea edo hilzorian egotea.

Arrantzura larrera joatea edo ezinezko gauzetan saiatzea.

Beste oilar batek kukurruku jo, gauzak bestela egin edo gertatu izan balira, egoera desberdina, hobe izango litzatekeela adierazteko.

Pekoz gora, azpikoz gora.

Sasitik berrora egin, egoera txar batetik beste okerrago batera igaro dela adierazteko.

[Dokumentu honetan](#) ikus daitezke berrikuntza guztiak.

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699